

Alemanian B,U.P,(?)ekG ikasleak

Ikastolan eta ikastolakoengan azken 20 urteotan jarri izan dugun esperantza apaltzen hasia daukagula esaten digu Xabier Gerenok, ikastolako *Ibilaldia 81* aldizkarian. Irakaskintzarako beharrezko ziren etxeak eraiki direla, irakasleagoa prestatu dela, testuak moldaturik daudela eta ikasleak euskaraz ikasi dutela dio. Gauza bat bakarrik ez dela lortu, ikasleak euskaraz mintzatzea. Lortu ez den helburu bakar honek «*frustratzeko*» beste indar dauka, Xabierren ustez, eta ez da gutxiagotarako.

Zergatik gertatu ote den ere galdetzen digu. Nik neuk zergatiak zehaztea ez dut errez ikusten, baina guk ba dakigu fenomeno hori beste nazio batzutan zergatik gertatzen ez den, Nork ez daki Portugaleko gazteria portugesez mintzatzen dela, Alemaniakoa alemanez eta Greziakoa gerkeraz? Eta ez dut uste nazio horietako gazteria gurea baino jatorragoa, gartsuago edo hobea izango denik.

Nazio horietan zergatik mintzatzen diren horrela eta gurean ez jakitea ez da zail-zaila. Telebista alemanez bada, irakaskintza nahiz burokrazia ere alemanez, ingurua eta giroa berdintsuak direla, zer mintza alemana ezik?

Arazoa maila honetan plantaturik bakarrik mereziko luke, behar bada, gure ikasleen erdararako joera aztertzeak.

Arlo honetan ematen den problematika konpontzea eta bideratzea erakunde publikoen, herri arduradunen eginkizuna da. Gure egunotan irakaskintzan egin diren aurrerapenak sendotuz gainera, telebista ere euskara hutsez behar dugu, hasteko; eta beti, herri honen agintea geure esku, guztiarekin ere, 30en bat urte behatko ditugula herri hau euskararatzeko jakinik.

Txurdinagako Institutuan diharduten ikastoletatiko neska-mutielei erdaraz mintzatzearen arrazoia galdetu diet. Hara erantzunak:

- Ez dakit zihur, hala dela, bai.
- Nekez bada ere hasten gara euskaraz, baina berehala goaz erdarara, erosoago egiten zaigu eta. (Zorionez, erdarara GOAZ esaten dute eta euskarara GATOZ). Gehientsuen arrazoia hauxe da.
- Gazteok bakarrik ez gara erdaraz egiten dugunak, zaharrak ere gure moduan portatzen dira. Baina hori ez da frakaso, Gerenok dioen moduan. Euskara, piskanaka-piskanaka aurrera joango da.
- Nire lagunek, kaleko ezagunek, etxekoek, ez dute euskaraz egiten.
- Erdaraz, euskaraz baino berba gehiago egin dugu beti eta orain ohitura bihurtu da.
- Xabier Gerenok dioena guztiz egia da, baina erru guztia zentralismo inperialistak dauka.
- Euskaraz egiten ez badugu telebista, sendia eta gizartearen erruz da.
- Euskaraz mintzatzeko kontzientziarik ez daukagulako.
- Arrazoia garbi dago nire ustez. Ez da izango sudur puntan jartzen zaigulako, ez eta beste arrazoi bitxiren bategatik, arrazoi jakinekatik baino.
- Lehenengo eta behin, ez daukagu euskaraz egiteko erreztasunik, ez dakigu. Funtzio errepresentatiboa, behar bada, betetzen dugu, baina ez expresiboa. Ez dakigu euskaraz, ez pozten, ez hasarretzen, ez ezelako sentimenduak adierazten ere, nahiz eta gai teknikoak errez erabili.

Ikasleok eman dizkiguten arrazoiak ikusiz, berehala ohartzen gara eskola eta ikastolako lanaren ezintasunak eta mugak nondik norakoak diren. Irakaskintzatik kanpo konpondu behar direla arazo asko jakin

arren, ikasleek eman dizkiguten arrazoiek, ikasleen, irakasleen eta gurasoen hutsuneak ere argi erakusten dizkigute.

Ikasleek, ez dakitela behar den beste esaten dutenean, agian 2.BUP.en, *orroa ukatu, zimeldu-t&n*. esangura ez dakien ikasle asko dagoela diote. Hori konpontzeko bideak ez jartzea geure errua da, ez besterena. Kausak? Eskolaurrean gelako 40 haur edukitzea, irakasleak mintza praktika urriak egitea, umeen gurasoak euskararik ez ikastea...

Euskara, egitan bizitzaratu nahi badugu, zergatik ez behartu gurasoak ere euskara ikastera? 28-30 urteko ikastolako gurasoak euskara ikasteko gertu ez badaude, nork arraio ikasi behar du? Langabezien egonik lanlekua aurkitu nahi duenak? Zer dela eta mintzatuko da euskaraz 5 urteko haurra, 28 urteko gaztea mintzatzen ez bada? Errogatibetara euria eskatzera, euritako gabe doanak ez dauka fede beroegirik!

Gaur-gaurkoz, hutsune, ezintasun, gabezia guztiok ditugula, ikaslea kontzientziaztera jo beharko genuke, behar bada. Nire inguruko euskaldunberri asko, kontzientziazetik etorri dira ikastera, mintzatzera eta hori, giro ezin desegokiagoan bizi arren. Berez eta beti ere kontzientziazte bidea gutxiengoarena izango dela jakinik. Herri osoa, kolore guztietako gizartea ez dugu mentalizatze lanez euskararatu.

Lehen puntura itzuliz eta ikastegia gizartearen espilu baino ez dela —gure kasuan gizarte diglosikoarena— eta arazoa politikoa dela jakiniz, bukatzeko, neure ume denporetako Mungiako eskola dakart gogora. Egun osoz ekiten ziguten erdaraz, *Don Kixote* ez zenean, *Cara ai Sol* kanta araziz, baina eskolako atea atzean utzi bezain laster, *joangozak txori habiek koiten* esan eta hankotsa.

Gaur, ostera, giro soziala aldatu egin da. 81 honetan, aldatu egin dira faktore asko. Edozein atso daukazu telebista aurrean, Aita Santua edo Rodriguez de la Fuente dela eta ea *por supuesto-k* zer esan gura duen galdetzen.

Ondorioz, nire haurtzaroko eskola erdalduna euskalduntzen hasi garenean, garai batetan euskaldun genuen kalea ere arrotz bihurtua daukagula aitortu behar dugu. Lehenago nahiko zitekeana —euskara eskoletan irakastea— orain ez da nahiko.

Juan Luis Goikoetxea